

Kostuen egitura

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak KOSTUEN EGITURA deritzogu. Kostuen egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete.

Kostu finkoak enpresako ekoizpen-mailarekin edo negozio-bolumenarekin loturik ez dauden kostu totalen zatia dira.

Kostu aldakorrak ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak dira.

Eskala ekonomiak produzitutako unitateen kopurua handitzean, unitate bakoitzeko kostuen murrizketa lortzen denean, kostu finkoak kantitate handiagoaren artean banatzen dira.

Zabalkunde edo hedapen ekonomikoak: kostu finko berdinak aprobetxatu daitezke antzeko produktu bat baino gehiago egiteko eta beraz, produktuaren kostua murriztea lortzen da.

Laburbilduz enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko. Hauexek izango dirakostuen egituren barnean aurkituko ditugun kostu motak: kostu finkoak, kostu aldakorrak, eskala ekonomiak eta hedapen ekonomiak.

Esan beharra dago, prezioari ez diogu hainbesteko garrantziarik eman nahi, izan ere, gure helburua produktua ahalik eta kalitate hoberenetan ateratzea da. 10.000€ko hasierako inbertsioa egingo dugu gure enpresan, gure operazioak sendotzeko eta hazkunde iraunkorra lortzeko helburuarekin. Inbertsio hau lau arlo garrantzitsutan banatuko da.

Inbertsioaren zati garrantzitsu bat ekoizpen-enpresari ordaintzeko erabiliko da. Horrela, gure produktuak kalitate eta eraginkortasun handiz fabrikatzea

bermatuko da, bezeroek espero duten entrega epeak eta merkatuaren estandar altuak betez.

Inbertsioaren beste zati bat bulegoa alokatzen erabiliko da, gure taldeak modu eraginkorreetan eta erosotasunez lan egin dezan. Espazio egokia edukitzeak ez du bakarrik produktibitatea hobetuko, baizik eta lankidetzak eta sormena sustatuko ditu, horrek gure enpresan berrikuntzekin jarraitzea ahalbidetuz.

Azkenik, inbertsioaren zati bat banaketa-enpresaren gastuak estaltzeko erabiliko da. Horrela, gure produktuak modu eraginkorreetan eta denboran entregatzea ahalbidetuko da, bezeroaren asebetetzea bermatuz eta merkaturan gure presentzia handituz.

Hilean 1.200€ erabiliko ditugu enpresaren funtzionamendurako beharrezko materialak eta tresnak erosteko. Horrek, adibidez, ordenagailuak eta eguneroko lanak modu eraginkorreetan egiteko beharrezko beste ekipamendu teknologikoak barne hartzen ditu.

Inbertsio estrategiko honekin, gure enpresaren hazkunde iraunkorraren oinarriak ezarri nahi ditugu, eta arlo bakoitzak modu optimo eta koordinatuan funtzionatzea ziurtatu.



Gure enpresaren kostu finkoek honela banatuko dira, hau da, gastu egonkor eta egituratu bat izanik, gure jardueraren jarraipen egonkorra eta etengabeko hazkundera ziurtatuko dutena.

1.500€ banaketa-enpresari hilean ordainduko dizkiogu gure produktuen banaketa ardura duen enpresari. Gastu honek logistikako zerbitzuak, garraioa eta bezeroei entrega egitea estaltzen du, gure produktuak denboran eta egoera egokian irits daitezen bermatuz.

Hilean 800€ ordainduko ditugu alokairuan gure instalazioen alokairuaren truke. Gune honek gure taldearentzat lan-ingurune egokia eskaintzen du, produktibitatea eta gure jarduerak modu egokian garatzea sustatuz.

Gure enpresaren kostu aldakorrak faktoreekin loturik egongo dira, jarduera bolumenaren eta beharren arabera aldatzen direnak. Hona hemen bi kostu aldakor nagusiak.

Ekoizpen-enpresari hilean 3.000€ inguru ordainduko dizkiogu ekoizpenaren ardura duen enpresari baina kopurua aldatu egingo, izan ere, hilabetero ez dugu produktu kopuru berdina eskatuko.

TikTok-eriei gure produktua sustatzeagatik ordaindutakoak kostu aldakorra da hau, TikTok-en hainbat influencer-rekin egiten ditugun lankidetzekin lotuta dagoelako. Koiuntura bakoitzak prezio desberdina du, beraz, ordaindutako zenbatekoa influencer bakoitzaren akordioaren arabera aldatuko da. Lankidetza horiek gure produktuen ikusgarritasuna handitzen lagunduko digute eta publiko zabalago batera iristeko aukera emango digute, honek zuzenean eragingo du gure salmentetan.

Lokalean egiten diren zerbitzuen gastuak ere aldakorrak dira, energia, ur eta gas kontsumoaren arabera aldatzen direlako. Kostu hauek faktore batzuen arabera aldatuko dira, adibidez, instalazioetan pertsona kopuruaren, ekipamenduaren funtzionamenduaren eta zerbitzuen erabilera orokorraren arabera, eta horregatik, hilabete batetik bestera aldatu daitezke.

